

IZANAK IZAN

1-Jarraian duzun ipuina zer denboratan gertatzen da? Zein hitzek esaten digute iraganean gertatu zela? Azpimarra itzazu testu beltzean. Adibidea lagungarri izango duzu.

Gogoan izan pertsonaien zuzeneko hitzek ez dutela istorioa noiz gertatu zen adierazten.

Behin neska batek bere txirrindua margotu nahi izan zuen. Horretarako margo berdea aukeratu zuen, hura zuelako atsegin.

Baina neba nagusiak esan zion:

—Inoiz ez dut txirrindu berderik ikusi; gorriz margotu beharko zenuke, orduan bai polita.

Gorria ere atsegin zuen neskatoak. Beraz, margo gorria hartu eta gorriz margotu zuen txirrindua. Beste neska lagun batek esan zion:

—Mundu guztiak dauka txirrindu gorri bat! Zergatik ez duzu urdinez margotzen?

Neskatoak zertxobait pentsatu zuen, eta, azkenean, urdinez margotu zuen bere txirrindua. Baina auzoko batek esan zion:

—Urdina? Ez al zaizu tristeia iruditzen? Horia askoz alaiagoa da! Neskari irudituhoria askoz alaiagoa zela, eta margo horia hartuBaina leiho batetik gizon batek garrasi egin.....

:—Oso hori itsusia da hori! Hartu urdin zeru kolore bat, ikusiko duzu zer polita!

Eta neskatoak urdin zeru kolore margotu bere txirrindua. Baina bukatzen ari zela, atzera lehenagoko neba bera etorri eta esan.....

—Baina ez al zenuen, ba, gorriz margotu behar! Urdin zeru kolorea baino margo txepelagorik! Gorria aukeratu behar duzu. Gorria!

Barreari ekin..... orduan neskatoak, eta hasiera-hasierako margo berdea harturik, belar kolore berdez margotu bere txirrindua.

Harrez geroztik, bost axola zitzaion besteek esaten zutena.